



FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak, negozio eredia funtziona dezan egin beharrezko jarduerak dira.

Gure proiektua funtziona dezan, guk sustatu eta antolatuko dugu proiektuaren produkzioa. Bezeroena arazoak konpontzeko web gunean plataforma edo sare bat jardungo dugu, eta aldizkaria formatu fisikoa duten pertsoneri, enpresaren telefonoa emango diegu gurekin kontaktatzeko.

Taldeakide bakoitzak gauza batez arduratuko da, eta horrela lana ez zaigu pilatuko (aldizkari formatu fisikoen garraioaz, garraio enpresa bat arduratuko da, eta horretarako bere zerbitzuak kontratuko ditugu).

Produkzioaren barruan atal hauetaz arduratuko gara:

- **Sormena:** Aldizkariaren diseinuaz arduratuko den lankidea ezaugarri hau izango du, gure kasuan; Luisa izango da erronka honen arduraduna.
- **Ezagutza:** Web gunea sortzeko informatika eta web guneak sortzeari buruzko ezagutzak izan behar dira, kasu honetan; Mabel lankidea arduratuko da.
- **Antolakuntza:** Salmentak eta antolatzeko abilezia beharrezkoa izango da, bezeroei iristeko, eta atal honetaz, Estibaliz lankidea arduratuko da. Honek bezeroekin eta garraio enpresarekin komunikatuko da.

Guk beti-beti arduratuko gara aldizkaria eta web gunearen funtzionamenduaz bezeroei eta bazkideei ezer ez faltatzeko, baina egun batean arazoren bat izanez gero, ahalik eta azkarren konponduko genuke. Lanean zehar aurkitu dezakegun arazoak hurrengo hauek dira:

- Produktu bat erosi duen bezero bati egindako eskaera etxera ez heltzea. Arazo honi guk aurre egingo genioke, momentuan konponduz eta bezeroa konforme ez balego dirua bueltatuko genioke.

Luisa Betancourt, Mabel Sanchez eta Estibaliz Lasa.

- Gure lanean aurkitu dezakegun beste arazo bat, sarea gaizki funtzionatzea izango litzateke. Kasu honetan, sareak eman dezakeen arazoak konponduko genuke, atal honetaz Mabel lankidea arduratuko litzateke, informatikoa delako. Arazoa konpontzen denbora gehiegi luzatzekotan, bezeroei eta bazkideei abisatu egingo genieke, horrela ekiditeko genuke bezeroen eta bazkideen galerak izatea.

Aipatutakoaz gain, gure webgunea ondo egoteko eta bezero zein bazkideak pozik izateko gauza hauek kontutan hartzen ditugu:

- **Plataformaren antolaketa:** Hitz teknikoak ez ditugu erabiliko bezero eta bazkide guztiak ondo uler dezaten informazio guztia.
- **Plataformaren mantenimendua:** Bertako informazioak egunero edo astero berrituko dugu, hau da, informazio, jolas, kasu kliniko, eta erosketa produktu berriak jarriko ditugu, horrela; bezero eta bazkideari ez baititugu aspertuko.
- **Plataforma sustatu:** Bazkide eta bezeroen kopuru kontrol bat eramateko, urte osoko bezero eta bazkide kopuruaren media bat egingo dugu, horrela jakingo dugu zenbat bezero edo bazkide berriak dauzkagun eta zenbat galdu ditugun, baina hau urtean behin egingo dugu.

Beraz, hau guztia ikusita argi dago gure enpresaren funtsezko jarduera guztiaz arduratuko garela, aldizkari formatu fisikoen garraioaz izan ezik, horretarako enpresa garraio bat kontratatuko dugulako.